



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

ORDUKO GERRAKO HAURRAK, GAURKOENTZAKO BABES ESKE

Haurrak. Hala ziren orain dela laurogei urte. Gerrako haurrak, orduan bezala orain ere. Asteazkenean omen-
du zituzten, Santurtzin, milaka haur Britainia Handira, Belgikara, Estatu frantsesera eta Sobietar Batasunera
abiatu zireneko portu berean. Ez ziren oporretan joan,
gerratik ihesi baizik. Inork baino hobeto dakite zer den

familia, herria, dena atzean uztea; familia, herria, dena bonben eta larderiaren azpian uztea. Inork baino hobeto dakite zer diren beldurra, ziurgabetasuna, arrotz sentitzea. Horregatik izan zi-
tuzten Europaren hegoaldeko itsasertzean pilatzen diren errefuxiatuak gogoan. Horregatik es-
katu zuten haientzako babesa. Laurogei urte barru, milaka eta milaka errefuxiatu horien artean
egun munduari mesfidati begiratzen dioten haurrak, Mediterraneo izeneko hilobi erraldoi hori ze-
harkatzea lortu duten haurrak, agertuko ote dira hunkituta beren herrietan beso zabalik hartu zi-
tuzten Europako herrialdeei esker ona agertzen?

Xabier Izaga Gonzalez